



ARANTZAKO UDALA

Nik, Nagore Madariaga Iriartek, Arantzako Udaleko idazkariak

ZIURTATZEN DUT:

Arantzako Udaleko Osoko Bilkurak, 2021eko abenduaren 27an, osoki idatzirik dagoen honako akordio hau hartu duela:

6. GESERLOCAL, S.L. ERAKUNDE INSTRUMENTALA DEKLARATZEKO ETA PREMIADUN BIDEZKO TRIBUTU KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ETA KONTABILITATE ETA EKONOMIA LAGUNTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du berriki GESERLOCAL, S.L. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik atera egin dela. Beraz, euren zerbitzuak kontratatu ahal izateko aldeztu aitzinetik erakunde instrumental izendatu beharko litzateke ondorengo tributu kudeaketarako laguntza eta kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuak kontratatu ahal izateko. Erakunde instrumental izendatzeko, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedaturikoa jarraituz egin beharko litzateke.

Tributu kudeaketarako laguntzaren kostua bildutako zorren kostekin ordainduko litzateke, beraz, ez luke gailentzerik eragingo.

Kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuari dagokionez, aurrekontuak eskatuak direla azaltzen du idazkaria. Dena dela, zerbitzu honen kostua benetan egindako zerbitzuaren arabera ordainduko litzateke, beraz, ez da espero aparteko gailentzerik eragitea. Gainera, aipatzekoa da 2022an ez dagoela aurreikusia administrari laguntzaile bat kontratatzea kontabilitatea eramateko, beraz, diru kopuru hori honako zerbitzu honetara bideratu ahal izanen litzateke.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- GESERLOCAL, S.L. Arantzako Udalaren erakunde instrumental izendatzea.
- 2.- GESERLOCAL, S.L.en tributu kudeaketarako laguntza kontratatzea.
- 3.- GESERLOCAL, S.L.en kontabilitate eta ekonomia laguntzako zerbitzuak kontratatzea.
- 4.- Akordio hau, dagokion dokumentazio osagarriarekin batera NUKFri eta GESERLOCAL, S.L.ri jakinaraztea, zerbitzuekin ahalik eta lasterren hasi ahal daitezen.
- 5.- Akordio hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ZIURTAGIRI hau ematen dut.

Arantzan, 2022ko urtarrilaren 3an.

IDAZKARIA,

Nagore Madariaga Iriarte